

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Excavaciones Mendiola SA enpresatik datozen hondakin-urak Billodasen isurtzeko baimena. Iruña Okako udal-mugartean. Obra publikoetako ibilgailuak eta makinak biltzea eta gordetzea

Espediente-zenbakia: VDP-A-2022-0018.

Eskatzailea: Excavaciones Mendiola SA.

Excavaciones Mendiola SA enpresak Iruña Okako udal-mugartean, Excavaciones Mendiola SA enpresaren jardueratik datozen hondakin-urak Billodasen isurtzeko baimena eskatu dio Uraren Euskal Agentziari. Jarduera horretan, materialak bildu, eta obra publikoetako ibilgailuak eta makinak gordetzen dira. Horretarako, dagokion dokumentazio euskarria aurkeztu du.

Hori guztia jendurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hilabeteko (1) epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Gamarrako Atea kalea 1. A - 11. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a

Isurketen arduraduna

AITOR BELDARRAIN URIONDO